

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK

Otsailak 27
Apirilak 24
Maiatzak 29
Arratsaldeko 18:00etan
La Bota elkartean

BERTSO ESKOLA

Asteazkeno, 19:00etan
Gareanen egoitzan

IRAKURLE KLUBA

Otsailak 28
Peio Lizarralde – Orbanak
Apirilak 25
Harkaitz Cano - Twist
Arratsaldeko 19:30ean
Lizarrako liburutegian

LIZARRAN KANTUZ

Otsailak 23
Martxoak 30
Apirilak 27
Maiatzak 25
Arratsaldeko 19:30ean
Baxenabarra kaletik abiatuta

DIAPORAMA

“Porrotaren alde”
Alberto Iñurrategi
Apirilak 11, 19:30ean (zehazteke)
Maria de Vicuña Gazteriaren Etxean

LITERATUR EMANALDIA

“Unibertso txikia” - Euslandia
Maiatzak 23, 19:30ean (zehazteke)
Lizarrako liburutegian

PSIKOMOTRIZITATEA
ETA KIROL-ANITZA

4 eta 5 urteko taldea
Ortziralero 17:15-18:15
Lizarreria Kiroldegian



Korrika 18, edo lasterketa adinez nagusia egin zaigunekoa

Aurten Korrika adinez nagusi bilakatu zaigu. Haurtzarora atzean utzi eta gaztaroaren hastapenak ezagutuko ditu, hemezortzigarren lasterketa baitugu eginen 2013 honetan.

Euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako, dakienak ikasi nahi duenari irakatsi, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera eman, agintariekin herritar orori ikasteko bideak erraztu... Denok dugulako zeresana eta zeregina, Eman euskara elkarri, horixe dugu Korrika 18ren leloa.

Euskara elkarri emateko, eta jakinik Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoak ez dakiela euskaraz mintzatzen, ezinbestekoa da erdaldunek euskara ikas dezaten. Horregatik, Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak omendu nahi ditu.

Lanetik irteadakoan euskara ikastera doazen Iñigo eta Eburne; biloba berriekin euskaraz aritu nahi duten Marisa eta Karmele; euskara ikasten hasi den Wilbor; mintzalagun talde batean dabilen Maritxu; barnetegietara joaten den Ines; autoikaskuntzan ari diren Alberto eta Josebe; gauzez berandura arte ikasten duten Karlos, Arantza eta Neus; haurra eskolatik hartu aurretik euskara ahoan darabilten Mertxe, Kristina eta Olga... Haien ahaleginarekin euskaraz bizi

ahal izatea ahalbidetzen eta, beraz, elkarbizitzarako aukerak sortzen ari direlako, AEK-k, Korrika 18 honetan euskara ikasten aritu eta ari diren guztiak omenduko ditu.

Eman euskara elkarri... Korrika 18ren leloa.

Korrika Kulturala

Euskal kultura bultzatzeko asmoz eta euskara jendartearen esparru guztietara eramateko xedearekin Korrika Kulturala antolatzen da lasterketa hasi aurreko hilabeteetan. Horretarako Korrika Batzordeak antolatu dira herri askotan eta Lizarraldean ez da salbuespena izan. Korrika Kulturalan ezinbestekoa izaten da eskualdeko lagun, elkarte eta eragileen parte hartzea jarduerak antolatu ahal izateko. Horrela, euskaltegiaren gidaritzapean perfil askotariko hogeitaz eragile eta elkartek osatu dituzte aipatu batzordeak.

Gure eskualdeko Korrika Kulturala otsailaren 6an abiatu zen **Pi-rritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoekin. Hauek Lizarrako kiroldegian eskaini zuten emanaldian 700 lagunetik gora izan ginen ikuskizunaz gozatzen. Ekitaldi hau **Emaiozu Onena** haurren matrikulazio kanpainaren bukaera zen eta, aldi berean, Korrika Kulturalaren hasiera. Hain zuzen ere, emanaldiaren bukaerak kanpaina honen amaiera eta Korrikaren hasieraren arteko lekuko-pasa irudikatu zuen. Bertan, Korrika 18ren pankarta eskuan hogeitaz lagun oholtzara igo ziren eta pailazoekin *Korrika Kanta* eta *Maite Zaitut* abestearekin batera gorputza ederki astindu zuten.

Kotarro aldizkaria argitaratzen denerako beraz hainbat ekimen jada burutuak izanzen dira. Horrela, eta pailazoekin bezala, otsai-

laren 16ko larunbatean eskualdeko **Korrika aurkezpena** egin zen Lizarrako Basaula elkartean; bertaratutako lagunok euskaltegiako hainbat ikasleri egindako omenaldi xumearekin hunkitu ginen.

Dena den, Lizarrako asteburu *handia* otsailaren 22, 23 eta 24koa dugu. Ostiral horretan bertan, **“Euskalduna naiz eta arraro nago”** bakarrizketa saioa izanen dugu Pinupe Gaztetxean. Barry Manley “Barry Barrez” eta Aitor Txarterina “Baltziskueta”k hiruna saio eskainiko dizkigute 20:00etan hasita. Umorea oinarri, euskaldun izatearen eta euskaldun jokatzaren ondorioen gainean arituko zaizkigu bi antzezleak eta ondotik askaritxoak izanen da Gaztetxean bertan.

Larunbatean berriz, **Euskaraz Bizi eguna** Lizarran. Goizeko 11:00etan hasita, Lekukoaren bila Ginkana, ondotik haurrentzako jolasak 12:00etatik aurrera eta dantzaldia eta ginkana bukaera 13:00etan. Eguerdiko 14:30ean aldiz bazkari herrikoia, eta arratsaldeko 17:00etan Gartxot bakarlariaren musikaz gozatuko dugu; honen segidan, 18:30etik aurrera, euskaraoke gartsua. Jaiari 21:00ak aldera emanen zaio bukaera. Bai bazkaria zein arratsaldeko jarduerak La Bota Peñan izanen dira. Bestetik, aipatu dugun ginkanan Lizarraldeko 50 bat lagunek parte hartuko dute 6 taldetan antolatutik. Hainbat probatan lehiatuz taldeetako bat Nafarroako ginkanarako sailkatuko da. Berau Iruñean izanen da martxoaren

Lizarrako asteburu
handia otsailaren
22, 23 eta 24koa
dugu.



Zan eta honen irabazleak Euskal Herriko final handian Nafarroa ordezkatzeko aukera izanen du Baionan, Korrika bukaeraren egunean.

Asteburu bete honekin amaitzeko, zer hobe kirol pixka bat egitea baino. Igandean euskarazko **mendi irteeraldia** izanen da Mendaurrera. Hamabost lagunetik gora izena ematen badute autobusa izanen da; apuntatzeko jarri harremanetan Mendizale elkartearekin.

Korrika Kulturalak baina ez du atsedenek eta hurrengo asteartean, otsailaren 26an, Ines Bengoak "Goazen gezurrak kontatzera" helduentzako **ipu in emanaldia** egingen du 20:00etatik aurrera Gure Izkuntza elkartearen. Eta, ordura arte protagonismoa Lizarrak baldin bazuen, martxo hasterekin batera Lizarraldeko herriek hartuko dute lekukoa. Martxoaren 2an **Irantzuko** Mankomunitateko herriek **Korrika Jaia** antolatuko baitute. Horrela, 11:00etan Korrika Txikia izanen da Aritzalatik Abartzuzaraino, bertan puzgarriak eta hamaiketako egingen dira. Gauean aldiz Allotzen jarraituko du egunak, 20:00etatik aurrera trikipoteoa egingen da herrian barna, 22:00etan afaria (16€, izena emateko epea otsailaren 27a baino lehen) eta bukatzeko asmoarekin edo, 24:00etatik aurrera dantzaldia.

Hurrengo astean berriz, martxoaren 9an, bi **Korrika** Jai izanen ditugu, bata **Zudairen** eta bigarrena **Antzinen**; biak ala biak egun osoko jaiak. Herri bazkariak, Korrika Txikia, musika ... giro aparta beraz. Haurren txanda martxoaren 12an, 16:15ean, iritsiko da, orduan izango baita Korrika Txikia. Ohiko legez Ikastola eta Remontival eskoletako haurrak batuko dituen lasterketa honek irudi zirraragarriak utziko dizkigu.

Asteak joan, asteak etorri, azkenean martxoaren 14an eta Andoainetik abiatuko da Korrika. Ohikoa denez jai giroan egingen du, baina ezin Andoainen berandutu, hurrengo egunean bertan, martxoaren 15ean, ostiralarekin, Lizarraldean izanen baitugu lasterketa. Kirol nahikorik egin ez duenarentzako, larunbatean pilota maratoi herrikoia ospatuko da egun osoan zehar Remontival frontoian.


Nahikoa kirola egin ez? Lasai, astearte horretan berriro izanen baitugu Korrika Lizarraldean; hori bai, goizean goiz eta Lizarratik igaro gabe. Azkenik, 2.580 kilometro egin eta gero, Korrika bere helmugara iritsiko da martxoaren 24an Baionan. Bai Korrika hasierarako zein bukaerarako autobusak irtengo dira Lizarratik. Informazio gehiago edo txartelak eskuratzeko jo euskaltegira.



Beinat Etxepare euskaltegiko ikasleak ezagutzen

Kontuan izanik Korrika 18ren omenduak euskara ikasleak direla, saia gaitezen zenbakien bitartez nolabait Lizarrako euskaltegiko ikasleak ezagutzen. 2004/2005 ikasturtetik 2011/2012 ikasturtera, 821 matrikula egin dira euskaltegian eta hauetatik gehienak, nabarmen, emakumeak izan dira: 496, edo bestela esanda, guztien %60a. Bestetik, ikasle asko Lizarra inguruko herrietakoa izan da: 397, matrikula guztien %47.

Ikasle gehienak Lizarrako eguerdiko edo gaueko klaseetan eman dute izena (586, %71a), baina izan dira ere klaseak haien herrian egin dituztenak (Esprontzedan, Jaitzen, Bilatortan, Abartzuzan, Aiegin eta Metautenen 108 izan dira, guztien %13a); aurten Artazan ere badira.



AEK-ren sorrera Euskal Herrian... eta Lizarran

Korrika 18 ospatzen dela eta gure Kotarro honetako protagonista AEK bihurtu zaigu, eta erakundearen historia txikia azalduko dugu

Lizarrako AEK-ren Beinat Etxepare euskaltegiaren historian arakatzan hasita, lehenbizi www.aek.org helbidean begiratu dugu, bertan aipatzen diren datu batzuk eskaintzen ditugu hemendik aurrera.

“Lehenengo alfabetatze-taldeak 1965 inguruan sortu ziren, eta urte hartan antolatu zen alfabetatzearen aldeko lehenengo kanpaina.

Alfabetatze-talde haiek Euskal Herri osoan sortzen ziren neurrian, alfabetatze-arloa jorratzeaz gain —hau da, euskaldunak direnei beren hizkuntzan idazten eta irakurtzen irakasteaz gain—, euskararik ez zekiten euskal herritar multzo handiari euskara irakastearen beharra agerian geratu zen. Denbora igaro ahala horixe bilakatuko zen AEKren zeregin funtsezkoena. Halaxe sortu ziren gau-eskola izenekoak.

Mugimendu hau guztia Euskaltzaindiak babestua eta bultzatua izan zen.

1974-75 ikasturtean, Gipuzkoako gau-eskolen elkarte sortu zen.

Nafarroara eta Iparraldera ere hedatu zen mugimendua koordinatzeko beharra sumatuko zen poliki-poliki. Eta hala, 1976an, Bizkaiko ikasguek koordinatzea erabaki zuten. Koordinakunde horrek lehenbiziko aldiz AEK izena hartu zuen. Geroago, Hegoalde osoko ikasguak izan ziren koordinatzeko erabakia hartuko zutenak. AEK jaio da. 1979ko azaroan lehen Mintegia egin zuen, eta 1980an ofizialki Iparraldeko AEK sortu zen.

AEK-k bilakaera garrantzitsua izan du historian zehar. Euskaltzaindiaren ardurapetik atera eta ikasgu autonomoen koordinakundea izatetik Euskal Herriaren ikuspegi argia duen erakundea izatera igaro da. Gaur egun, AEK helduen euskalduntze alfabetatzean aritzen den elkarterik garrantzitsuena dugu eta, administrazio-banaketak gaindituz, Euskal Herri osoan lan egiten duen


bakarra. 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiago eta 600 irakasle iraguru ditu.”

Lizarrako Errepublika garaiko gau-eskola

Lizarran egon zen lehenbiziko gau eskola Errepublika garaian egon zen, lehenbizi 1932an Jose Uranga jesuita azpeitiarra irakasle zelarrik, jesuita hark urtebete lan horretan eman ondoren Canarietarako bidea hartu behar izan zuen, eta Petra Azpiroz leitzarra izan zen bigarren irakaslea, bai eskola umeena bai gau-erakolakoena. Hiru urtez aritu zen 1936an gerratea hasi zen arte.

Lizarrako 1970eko gau-eskola

Francoren agintealdiaren azken urteetan berriro sortu zen gau-erakola. Josetxo Etxarriren etxean biltzen zen taldetxo bat eus-



1975eko ordainketa agiria, Juan C. Lizarragak sinatua, "Jon zaharra" goitizenaz ezagunago zenak

Jatetxea

Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

LIZARRA

Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINZA

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

karazko diskak entzuteko, euskara ikasteko asmoz. Talde hark sortu zuen Lizarra Ikastola eta ikastola sortzearekin batera berriro ere, Errepublika garaian bezala, ikastolako lehenengo an-dereñoak izan ziren gau-eskolako lehenengo irakasleak 1970ean. Ana Berrizabalgaitia, Bizkaitik etorri zen eta Mari Paz Iturbe Gipuzkoatik. Lizarra auzoko frontoian ziren klaseak, baita Gure Hizkuntza elkartean ere. Inguruko herrietara ere joaten ziren klaseak ematera. Hurrengo urteetan, 80. hamarkada hasi arte horrelaxe izan zen. Ikastolako irakasleak ziren umeekin klaseak bukatu ondoren helduei euskara irakasten aritzen zirenak. Talde asko zeuden urte haietan, gauze ezezik ba omen ziren goizean goiz lanera joan aurretik ikastera hurbiltzen zirenak ere.

Lizarrako AEKren Beinat Etxepare euskaltegia

Esan bezala, 80ko hamarkadan, Euskal Herriko AEK-ko ardura-dunekin hitz egin eta Bizkaitik hiru lagun etorri ziren, Juanjo Palomares eta Miren Asla bermiotarrak, eta Arantxa Ugalde busturiarra; bestalde, Lizarran bertan ziren bi gipuzkoar, Isabel Berasategi azpeitiarra eta Harri Lakonbe; horiekin batera ikastolako irakasle batzuekin hasi zen.

Laster utzi zioten ikastolako irakasleek eta AEK bere kabuz hasi zen helduak euskalduntzeko lanean, ordurako Kale Nagusian, oraingo tokian.

Metodologia komunikatiboa

Euskararen irakaskuntza AEK-k betidanik izan du metodologia aurreratu eta berritzaileak erabiltzeko irizpidea. Haur eskoletan eta gainerakoetan baino lehenago hasi ziren 80. hamarkadan hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia komunikatiboak erabiltzen eta garatzen, materiale bereziak sortuz eta irakasleagoa formatuz.

Ikaslego anitza

Lizarrako AEKren Beinat Etxepare Euskaltegiak izan duen historia luzean hainbat ikasle hurbildu da, mota askotakoak eta motibazio ugariak.

Denetik izan da, lagunekin, seme-alabekin, bikotearekin edo ilobekin hitz egin ahal izateko ikastera zetozenak, lehenago astirik

edo aukerarik izan ez zutelako jubilatutako ondoren etorritakoak, langabetuak, kanpotik Lizarrara etorri eta integratu nahi dutenak, euskara jakin arren sakondu, hobetu edo EGA agiria lortu nahi dutenak... Ikaslego anitza izan da eta orain ere horrela jarraitzen du, bakoitza bere motibazioarekin baina denak euskara ikasten.

Arazo ekonomikoak

AEK-ren historian zehar etengabe errepikatu den zoritxarreko egoera arazo ekonomikoena da, zalantzarik gabe. Betidanik jasan izan du, Nafarroan batik bat, erakundeen aldetik laguntza txikiak. Bereziki aipagarria da azken urteetan okerrera egin duela kontu horrek. Izan ere krisi ekonomikoa hasi baino askoz lehenago Nafar Gobernuak laguntzak 90. hamarkadan jasotzen zirenak, heren batera murriztu baitzituen, eta harrez gero berdin jarraitu dute, poli-ki-poli-ki, urtetik urtera jaisten, egoera jasanezina bihurtuz.

Inoiz baino beharrekoagoa da KORRIKA, korrikari esker irauten baitu.



2010eko Beinat Etxepare euskaltegi berrituaren inagurazioa.

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



Foto-inkesta

Korrika 2013

Aurtengo Korrikako omenduak euskara ikasten dutenak direla jakin dugunean argi ikusi dugu zenbaki honetako fotoinkestako protagonistak. Horregatik Beinat Etxepare euskaltegira joan gara eta lau ikasleri luzatu dizkiegu gure galderak:

- 1- KORRIKA egitea koldarren edo beldurtien kontua ote da?
- 2- Zein dira euskararen maldak?
- 3- Zer eskaini dizu edo eskainiko euskararen unibertsoak?



Edurne Ramirez

Beinat Etxepare Euskaltegiko ikaslea

1. Nik ez dakit beldurtien kontua den ala ez baina kaso honetan beharrekota da euskara bultzatu behar dugulako eta ekintza hau ezinbestekoa da horretarako.

2. Zoritxarrez oraindik malda edo oztopo ugari dago, adibidez Nafarroako Gobernuak ematen diru laguntzak oso urriak dira. Bestalde "Vascuencearen legea" ere ez da batere egokia. Gizartean ere

badaude oztopoak: euskarak eremu txikiak ditu, ikastola, euskaltegia... Pausoz pauso egoera pixka bat hobetzen ari den arren oraindik ez baita kalera asko atera.

3. Poliki-poliki zenbait gauza lortzen ari naiz. Prozesua luzea eta zaila izan arren satisfakzio asko dago. Ipuin bat irakurri, pelikula ikusi... Oso harro sentitzen naiz lorpen horiekin, sentipen ona da. Nire helburua nire bizitza euskaraz egitea da, eguneroko bizitzan euskaraz hitz egiteko behar den jarioasuna lortu nahi dut.



Alejandro Castellanos

Beinat Etxepare Euskaltegiko ikaslea

1. Ez, ez da beldurtiena, gainera orain badaezpada ere entrenatu behar dugu eta korrika egin protesta garaiak direlako eta horretarako forma fisiko ona behar dugu.

2. Aldapa asko dauka euskarak, adibidez indiferentzia, "hau zertarako?" dioen jendea. Bestetik eguneroko bizitzan erabiltzeko beldurra.

Gainera kapitalismoak gizartearen homogeneizazioa bultzatzen du, bizitzeko eredu bakarra, hizkuntza bakarra eta horrelako planteamenduekin euskara sobera dago.

3. Euskara normaltasunez hitz egitea lortzea espero dut. Ni Leondar Herrikoa naiz jatorriz eta euskara betidanik izan da interesgarria niretzat. Orain Nafarroan bizi izanik uste dut oso garrantzitsua dela euskara, bertako hizkuntza normaltasunez hitz egitea. Izan ere, nik uste dut euskara Nafarroa osoan ikasi beharko litzatekeela. Elebitasuna bi hizkuntza erabiltzea da, ez bata ala bestea.



Xabier Maya

Beinat Etxepare Euskaltegiko ikaslea

1. Nik ez daukat beldurrik KORRIKA egiteko, oso alaia izaten denez pozik joaten naiz. Atzetik nor datorren izaten da kontua beste batzuetan...

2. Alde batetik, Lizarran euskaraz hitz egitea zaila dela euskaldun gutxi dagoelako eta bestetik politikoei laguntza gutxi ematen dutela.

3. Euskal giroa oso polita da eta niri gustaten zait giro horretan ibiltzea. Ez hori bakarrik, telebista euskaraz ikustea, egunkaria irakurri ahal izatea eta nire semearekin euskaraz hitz egitea.



Arantza Leoz

Beinat Etxepare Euskaltegiko ikaslea

1. Ez, AEK-ren korrika justu kontrakoa da, nire ustez Korrikan parte hartzea ausarta izatea da. Ekintza hori oso ona da euskararako, euskara bultzatzen duelako eta jendeak euskararekin duen konpromisoa adierazten duelako.

2. Politika arloan lege aldetik badago malda, bai, baina euskaraz jakin eta eta ez erabiltzea da nire ustez maldarik handiena. Bakoitzaren hautu pertsonala da, zuk zeuk egin behar duzu euskaraz ahalik eta gehien bizitzeko hautua. Gaztelaniatzko ohitura euskarazkoa bihurtzea da zailena.

3. Nik gehienbat senitarteko harremanak euskaraz izatea espero dut. Horrez gain zinema ikusi, liburuak irakurri eta euskal kultura ezagutzea.

ILARGI

ESTELLA-LIZARRA

Deigual®


KATXETAS
Taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010



Gurutzegramak



Korrika

Ezker eskuin:

- 3- Badago beste korrika bat ekintzaz josia, korrika...
- 4- Zenbagarrena da aurtengoa?
- 6- Zenbat egun irauten du aurten?
- 8- Korrikaren mezua: eman euskara...

Goitik behera:

- 1- Euskaraz bizi direnak
- 2- Non bukatuko da?
- 5- Non hasiko da aurtengoa?
- 7- Nor da antolatzailea?

Euskalglofoa

Ika ika ika



Udalbide.NET
www.udalbide.net



ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberrira eta ikus ezazu zure UDALERRIaren informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor aukeratu dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hasieratik, Udalerriak eta Euskal Diaspoaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitez BULETIN ASTEHARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net
www.udalbiltza.eu

Masajista diplomaduna
Goi mailako kosmetika
Aurpegiko eta gorputzeko tratamendu berriak

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t. 948 554 001

www.centromirari.com

KORRIKA 18ren IBILBIDEA

Lasterketa erraldoia 2013ko **martxoaren 14an hasiko da, Andoainen**. Lizarraldera eta Lizarrara martxoaren 15ean bertan, gauez iritsiko da Etxauri aldetik eta, Nafarroan barna ibili eta gero, martxoaren 18tik 19rako gauean Erriberatik Los Arcosera eta hortik Kanpezura igaroko da. 11 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatu eta gero, **martxoaren 24an Baionan bukatuko da**. Bai Korrika hasierara zein bukaerara autobusa eskainiko da Lizarratik abiatuta. Ordutegiak orientagarriak dira, baliteke zertxobait aldatzea.

Martxoaren 15etik 16rako, ostirala gauean

Izurzu. 20:21
Muez. 21:12
Murugarren. 22:16
Bearin. 22:34
Lizarra. 22:40
Bilatorta. 23:31
Lorka. 0:10
Zirauki. 0:42
Mañeru. 0:58
Gares. 1:21

Martxoaren 19an, asteartea, goizean goiz

Azagra. 0:35
San Adrian. 1:11
Sartaguda. 2:35
Lodosa. 3:59
Sesma. 5:05
Los Arcos. 6:11
Mues. 6:47
Mendaza. 7:11
Azedo. 7:29
Kanpezu. 8:40



Korrika Kulturala Estellerrian

OTSAILEAN Ostirala 22

Euskalduna naiz eta arraro nago
bakarriketa eta ondoren askarixoa
Lizarrako Pinupe Gaztetxean, 20:00etan

larunbata 23

Euskaraz bizi eguna Lizarran
Goizean: 11:00etan ginkana, 12:00etan haurrendako jolasak, 13:00etan dantzariak, ginkana bukaera, 14:30ean herri bazkaria La Botan
Arratsaldean: 17:00etan Gartxot kantautorea, 18:30ean euskaraokea, jaiaren bukaera 21:00etan

igandea 24

Mendaurrea mendi irteera
Autobusa egonen da.
Informazio gehiago Lizarrako Mendizale elkartearen

asteartea 26

Helduendako ipuin kontalaria
Gure Izkuntza elkartearen, 20:00etan

MARTXOAN

larunbata 2

Irantzuko Mankomunitateko herrien Korrika jaia
Korrika txikia (Arizala-Abartzuzaga); hamaiketakoa Abartzuzan; afari herrikoia Allotzen, musika...
Egun osoan zehar

larunbata 9

Ameskoako Korrika jaia:
Korrika txikia, herri bazkaria, musika...
Zudairen, egun osoan zehar.

Lokiz aldeko Korrika jaia: Korrika txikia, pintxo-potea, herri bazkaria (barra egonen da)
Antzinen, egun osoko jaia

osteguna 14

Korrika hasiera Andoainen, autobuserako txartelak eskuratzeko Lizarrako euskaltegian
Lizarrako autobus geltokitik Andoainera

larunbata 16

Pilota maratoni herrikoia
Remontival frontoian, egun osoan zehar

igandea 24

Korrika bukaera eta jaia Baionan, autobuserako txartelak eskuratzeko Lizarrako euskaltegian
Lizarrako autobus geltokitik Baionara
Goizetik, egun osorako.

kotarro

23. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.